

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Bi motatako kolaboratzaileak izango ditugu:

- **Hornitzaileak:** Beraiekin lortuko ditugu gure lehenengo akordioak. Helburua kalitaterik oneneko produktuekin lana egitea. Hornitzaile horiek inguruko baserritarrak izango dira, produktu natural, hurbilekoak eta kalitate goreneko produktuak. Honekin batera, beste helburu bat ere lortzen dugu eta da gure herriko eta inguruko ekonomia bultzatzea. Baserritarrez gain, herriko okindegi batekin batuko gara masa sortzeko produktuak lortzeko, adibidez irina eta ogi bereziak.. Valor txokolate enpresarekin ere batuko gara, beraiek ematen dituen kalitateagatik eta inguruan horrelako enpresarik ez dugulako aurkitu.
- **Bestalde,** gosariak eskaintzen dituzten inguruko herrietako tarbernekin egingo ditugu akordioak, salmentak handitzeko eta beraien eskaintza zabaldu eta lehiakideengandik bereiztu ahal izateko. Frijitzeko prest dauden pack-ak eramango diegu eta salmenten ehuneko bat (adostutakoa, salmenta kopuruaren arabera) emango diegu.
- **Bezeroak:** Beraien leialtasuna lortu ahal izateko, fidelizazio txartelak aterako ditugu eskaintza eta deskontu bereziekin.